

POS-E12

*PD en Psicodidáctica: Psicología de la Educación y Didácticas Específicas***IRUDI MOTAK ETA GAITASUN KOGNITIBOAK LEHEN HEZKUNTZA GRADUKO ETA BIGARREN HEZKUNTZAKO MASTERREKO IKASLERIAK SEKUENTZIA DIDAKTIKOAK DISEINATZERAKOAN**

Jose Maria Etxabe Urbieto eta Teresa Nuño Angos

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea (Irakasletza sekzioa). Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola

Ikerketa honetan irakasle izango diren ikasleek sekuentzia didaktikoak diseinatzeko dituztenean erabiltzen dituzten irudi motak eta gaitasun kognitiboak aztertu nahi dira. Horretarako gai ezberdinei buruz elaboratutako sekuentziak aztertu dira eta hauetan kontutan hartu diren irudi motak hauek izan dira. Batetik irudi narratiboak eta bestetik irudi kontzeptualak. Azken hauetan analitikoak eta sailkapenezkoak bereizi dira. Bestalde ondorengo gaitasun kognitiboak kontsideratu dira: behatu, identifikatu, bilatu, formalizatu, erlazionatu, konparatu, sailkatu, hipotesiak proposatu, transferitu edo aplikatu, analizatu, sintetizatu, antolatu, kalkulatu, elaboratu, diseinatu eta baloratu. Honetaz gain sekuentzia didaktikoak elaboratzerakoan jarraitu duten eredu eraikitzailea ikaskuntza zikloaren lau faseetan egituratu dira: Esplorazio fasea, Ikuspuntu berrien sorrera fasea, formalizazio fasea eta aplikazio-ebaluazio fasea. Emaizetan ikus daiteke fase bakoitzean proposatzen diren jardueretan gaitasun kognitibo ezberdin bultzatzen direla baina erabilitako irudi moten arteko ezberdintasunak ez direla hain esanguratsuak: - Esplorazio fasean irudi narratiboak erabiltzen dituztenean behatu, identifikatu, analizatu eta kalkulatu gaitasunak garatzen dira. Aldiz sailkapenezko irudi kontzeptualetan identifikatu, konparatu, sailkatu eta analizatu gaitasunak bultzatzen dituzte. Irudi analitiko kontzeptualak dira gehien erabiltzen dituztenak, eta hauetan gaitasun gehiago garatzen dira: Behatu, identifikatu, erlazionatu, hipotesiak elaboratu, analizatu, kalkulatu eta elaboratu. - Ikuspuntu berrien sorrera fasean irudi narratiboan bitartez erlazionatu, analizatu, antolatu eta kalkulatu dira gehien garatzen direnak. Aldiz sailkapenezko irudietan identifikatu, konparatu eta sailkatu gaitasunak eta irudi analitikoetan eta irudi analitikoetan identifikatu, analizatu, kalkulatu eta erlazionatu. - Formalizazio fasean irudi narratiboetan analizatu da gehien garatzen dena eta irudi kontzeptual sailkapenezkoetan baita ere analizatu eta sailkatu eta irudi kontzeptual analitikoetan identifikatu, analizatu eta kalkulatu. - Aplikazio-ebaluazio fasean beste faseetan baina gaitasun gehiago garatzen dira. Narratiboetan aplikatu, antolatu, kalkulatu eta identifikatu, sailkapenezkoetan identifikatu, konparatu, sailkatu, analizatu eta elaboratu, eta analitikoetan identifikatu, kalkulatu, erlazionatu, aplikatu eta elaboratu. Konklusio gisa ondoriozta daiteke konplexotasun maila handiagoko gaitasunak aplikazio fasean eta irudi analitikoetan garatzen direla. Irudi narratiboetan maila sinpleagoa duten gaitasunak eta sailkapenezkoetan espezifikagoak diren gaitasunak (konparatu eta sailkatu).